



MAGDALENAREN ELEIZ-BIRA EDO PROZESIOA

XABIER

Erriko jaietan egiten diran festa eta ekintzen artean, Errenderiarrentzat, bat oso berezia da. Gure Magdalena donearekin egiten oi dan Eleiz-bira.

Or gelditzen dira, bezperan zazpiak jotzearekin batera, su ziriak ateratzen dituzten burrunda otsak. Or, «Centenarioren» eresi alaiak, Eresbatzako soiñulariak gartsu joaz, kalez-kale entzuten diranak. Or, buruaundiekin batera, gizon egin eta mutil koxkorren ixkanbillak, txistulariak lagun dituztela. Or, Ermitatxoan izaten dan Salbea. Or, gaueko eresi saioa gazteak jostazteko. Or, une berean, ume, gazte eta elduentzako, urtero oi

dan bezela, su festa zezen suskoarekin. Or, gau guzian izan diran zaratak... —tarteabesti on batzuek entzuten dirala—. Or, egun sentiko goiz eresi alaiak. Or, sokamutur eta zezenak tokiratzea, toriatzalleak beren trebetasuna azalduaz. Or gelditu dira .

Ordu pare bat igaro ondoren, gure Zaindariari egiten zaion omenaldi bereziaren garaia iritxi da.

Bere ermitatxoaren atarian biltzen dira bera ain maite duten Errenderiar batzuek. Agian urtearen zear elkar ikusigabeak, eta jakiña, lehen lenengoz agurrak: Kaixo Joxe!... Egun

on Juan!... Azkar igaro dek urtea!... Etxean ondo?... Eta oitura danez, bakoitzaren gora-berak... Elkar izketan ari dirala Alkate Soñuaren eresi otsak entzuten dira, Eresbatza eta Txistulariak bat eginda joaz. Aurretik dantzariak eta ondoren Erriko alkate, udalkideak eta Eleiz gizonak dituztelarik, ermitatxora urbiltzen dira. Gure Zaindaria agurtu eta otoitz bat egin ondoren, bere urte guziko itxipenetik, kaleruntz, irtetzen da.

Irteera onetan oroipenera etortzen zaizkit gure olerkari ospetsu izan zan «JAUTARKOLEN» itz bereziak: ATERATZEN DUTE BERE ELIZATXOTIK GIZON GARTSUAK ETA BEREN BIZKARRETAN GARAITSUKI EGURASTEN DUTE ERESI OSPATSUKI POZKARIO ETA OTOITZ ARTEAN».

Eresbatza, urtero bezela, «Marcha regular de Alberdi» deritzan eresia jotzen asten da. Or dijoaz, bere izeneko kalearen zear, Zaindariaren aldamenean, erritar gutxi batzuek: irurogei?... larogei?... Eunera ez dira iritxiko. Eresiaren aidea ondo emanor dijoaz. Gure Zaindaria ez al du laguntza geiago merezik? Nik baietz usten det.

Kaleko etxe batzuek Oial zuriz apaintzen dira bera omendu naiean. Eleiz-bira ikustera jende ugari azaltzen da: tartean, naiz eta gau-pasa eginda, badira batzuek beren errikotasuna agertuaz, agur egiten diotenak. Onela dijoa kalearen zear eta azkenik Eleiz Nagusira urbiltzen da. Barrura sartu aurretik, atarian, dantzariak beren agurra eskeintzen diote, eta onela, organu eresi artean sartzen da bere urteroko egonalditxo egitera.

Meza Nagusian urtearen zear baño ugariagoak izaten dira abeslariak, eta beren abesti ederrenak eskeintzen dizkiote egun orretan. Abeslariak ez ezik, apaiz, izlari eta laguntzalleak zeinek obetoago betetzen dituzte beren eginkizunak. Meza onetan erritik kanpora dabiltzan erritarak eta bertakoak biltzen dira bere Zaindaria otoitz baten bidez gurtzeko, Magdalen eguna dala oroituaz.

Une berezi au igaro ondoren, or gelditzen da Eleiz Nagusian, bakardadean, erritari bere babesa eskeiniñaz.

Bitartean eta urrengo egunetan, or dabil jendea alai eta kezkarik gabe, erriak dauzkan arazoak alde batera utzita, gorpuzari bear duan askatasuna emanaz.

Egun auek igarotakoan, berriro, Santiyo egunean, Meza Nagusiaren bukaeran, Eleiz Nagusian iru eguneko egonalditxo egin ondoren, or daramate bere ermitatxora Atarian prest dagozte musikalaria beren saioari ekiteko. Egun onetan, eta urtero bezela, «Primavera» deritzan ereskia jotzen dute —erritarrok ain ezaguna deguna—. Ereski au eta Magdalen egunean jo-

tzen diranak, urtean bein bakarrik jotzen dira. Noiz egiñak dira?... Ez da errexa jakitea, antziñakoak bai dira...

Or dijoa berriro gizon gartsuen bizkar gañean bere urte osorako iztegiara. Aldamenean, Magdalen egunean lagundu ziotenak berriro ere beren Zaindariaekin, apalki, eresi alai otsak entzunaz, barru-barruan xamurtasun berezi bat nabaituaz. Oial txuriaz etxeak apaindurik, berriro urbiltzen da bere ermitatxora.

Zenbat oldozpen etortzen dira Eleiz-bira egin dutenen artean! Or gelditzen zera bakardadean, zu, ain neurri gabeko esku-zabal eta maitale zeran ori! Eman iozu zure laguntza ain nastua dabillen zure erri maite oni. Izan dezagun erri maitasun berezi bat eta elkarren arteko arremantetan, joka dezagun gizonki. Orretarako zure laguntza eskatzen dizugu... Entzun arren gure otoitza!

Eta au eskatuaz, or dijoaz Eresbatzekoak «Centenario» joaz, beren atzetik dijoazten batzueri, negar malkoak ixuritzen zaizkiela..., Zaindaria agur egin ondoren.

Onela irixten dira Udal etxeraño, eta an musikalaria biziki txalotu ondoren, batak besteari agur egiten diote esanaz «DATORREN URTE ARTE JAUNGOIKOAK NAI BADU».

*Eleiz txikitik eleiz aundira
Irtzen zera gaur goizean
Gizon gartsuen bizkar gañean
Eta eresi artean
Erriko gizon eta andreak
Zenitum zure alboan
Auen ondoren eleiz gizonak
Agintariakin batean.*

*Eleiz aundira sartu aurretik
Dantzariaren agurra
Eta herriz eresi artean
Aldarearen aurrera
Zuri begira ortxe daukazu
Umill Errenderiarra
Biotzetikan eskeintzen dizu
Otoitz bat oso xamurra.*

*Berriro ere eleiz txikira
Joango zera aunditik
Eta an beste urte batean
Egongo zera bakarrik
Ez dezala esan zure erriak
Asko maite zaitudunik
Ez dedilla egon urte guzian
Zuri agurtu gaberik.*